

**BERMEOKO AUZOTAXI ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK DIRU-
LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**

ZIOEN AZALPENA

Bermeoko Udalak lurralde oreka eta mugikortasun jasangarria indartzeko apustua berretsi du. Auzotaxiak herriko auzoetan errolatuta dauden herritarrak hiri-gunera gerturatuko ditu prezio murriztuan, hain zuzen ere osasun-zentroa, udala, banketxeak edota dendak bezalako zerbitzuak dauden lekura.

Lehenengoa.—Dirulaguntzaren xedea

Oinarri-arautzaile hauen xedea da Auzotaxi zerbitzuaren erabileraren bidez horrela eskatzen duten Bermeoko herritarren joan-etorri gastuak diruz laguntzeko dagokion deialdian zehaztuko diren aurrekontu kredituen kontura diru laguntzak ematea.

Bigarrena.—Baldintza orokorrak

Edozein kasutan eta dagokion deialdian zehaztutakoez gain:

1. Onuradunak:

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Bermeoko landa eremuko etxeetan errolatuta dauden pertsonak. Hemendik kanpo geldituko litzatekeen kasuren bat agertuko balitz, alkateak, eta lurgintzako zinegotziak auzo alkateekin batera, horren gainean erabakitzeke ahalmena izango lukete.

Udalaren erregistroetan dagoen informazioaren gainean ez da dokumenturik aurkeztu behar.

Dirulaguntza ematen den epean aldaketarik egongo balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-1-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



2. Diruz lagundu daitekeen epea:

Urtarrietik abendura arteko epea izango da.

3. Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak:

Auzotaxi zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da goizeko zazpietatik (07:00) arratsaldeko zortzi ta erdiak arte (20:30) urte osoan zehar. Asteburuetan eta Jai-egunetan, goizeko zortzietatik (08:00), arratsaldeko hirurak (15:00) arte.

Bidaiak erreserbatzeko taxien telefonogunera deitu daiteke (tlf.:946880922) edota zuzenean taxilariekin harremanetan jar daiteke.

Zerbitzua erabiltzaileak eskatu beharko du bezperako arratsaldeko zortzi eta erdiak (20:30) baino lehen. Aldez aurretik abisatu gabe ere zerbitzua eska daiteke baina kasu honetan, adjudikaziodunak ahal izan behar du. Ondorioz, aldez aurretik abisatu gabe zerbitzua eskatzen denean, ezin da zerbitzu hori bermatu.

Eremu berdineko erabiltzaile bat baino gehiagok zerbitzua eskatzen dutenean, ibilgailua partekatu ahal izango da. Partekatzeari dagokionez, ibilgailuak baimenduta dituen jesarleku kopurua izango da muga. Ibilgailuaren jesarleku guztiak bete beharko dira ibilbide eta ordutegi bera duten zerbitzuak eskatzen direnean.

Kasu honetan tiket bakarra egingo da. Taxilariak pertsona bakarraren izenean jaulki ahal izango du bidai horri dagokion agiria.

Zerbitzua zolatuta dauden bideetan eskainiko da.

4. Ondokoak dira onuradunen betebeharrak:

Joan-etorrien baldintzak eta auzotaxi zerbitzua erabiltzeko arauak bete.

Udalak egin beharreko egiaztapenak ahalbideratu eta eskatzen den informazio guztia eman.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxe: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-2-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



Hirugarrena.—Diru-laguntzak ematea

Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura ondokoa izango da: Auzotaxi zerbitzuaren erabiltzaileei zuzenean ematea.

Joan-etorri bakoitzaren zenbatekoa Taximetroak gobernuarekin adostutako tarifetan zehazten dena izango da eta Udalak diruz lagunduko duen zenbatekoa ondokoa izango da beti ere laugarren puntuan agertzen dena betetzen bada:

- %70 joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 0-50 artekoa denean.
- %45 joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 51-90 artekoa denean.
- %25 joan-etorri bakoitzeko, joan-etorri kopurua 91-130 artekoa denean.

Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa urtero Udalak onartzen duen Aurekontuan jasotzen den zenbatekoa izango da.

Laugarrena.—Eskariak aurkezteko epea eta lekua

- Eskariak Udaletxean aurkeztu beharko dira, horretarako prestatutako ereduak erabiliz. Ereduak erakundean bertan eta honen web orrian eskuratu daitezke. Deialdi bakoitzean eskatzen zaizkion agiri osagarriak erantsi beharko ditu.
- Agiri ofiziala eskatzaileak sinatu beharko du.
- Gehienez ere, erabiltzaile bakoitzak urtean 130 joan-etorri izango ditu diruz lagunduta.
- Diru-laguntza eskuratzeko eskaria aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta modu formalean onartzea dakar.
- Eskariak aurkezteko epea urtero deialdian ezarritakoa izango da.
- Eskariarekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:
 - A. Deialdi honi erantsitako eskabide eredu beteta.
 - B. Eskatzailea identifikatu ahal izateko agiria, edota, hala badagokio, haren izenean jardun denarena (aurretiaz aurkeztu ez badu).
 - C. Aitorpen arduratsua aipatuz udal betebeharrak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela. (Eskaera eredu).
 - D. Aitorpen arduratsua esanez eskatzaileak deialdiak jarritako baldintzak



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-3-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



betetzen dituela. (Eskaera ereduan).

- E. Aitorpen arduratsua aipatuz ez duela Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikulua jartzen dituen galarazpen arrazoirik. (Eskaera ereduan).
- F. Erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela.
- G. Bestelako agiri osagarriak ere eskatu ahal izango dira.
- H. Aurkeztutako eskariekin batera ez badira beharrezko agiriak erantsi edota emandako informazioa ez bada nahiko, eskatzaileari 10 egun balioduneko epean dagokion agiriak bidaltzeko eskatuko zaio. Jadanik eskatutako epean agiriak bidaliko ez balitu, eskarian atzera egiten duela ulertuko da eta diru-laguntza ukatuko zaio.
- I. Jakinarazpenetarako, Udalak eskarian agertzen den helbidea erabiliko du. Eskatzaileari dagokio egon daitekeen edozein aldaketaren berri ematea, batez ere eskatzailearen helbideari dagokionean.
- J. Interesdunari jakinaraziko zaion eskaria onartu ondoren, Udalak eskatzaileari alta emango dio auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan eta erabiltzaileak auzotaxi txartela eskuratu ahal izango du. Txartel hori bakoitzarena eta besterezina izango da eta, edozein kasutan, taxi zerbitzua erabiltzeko akreditazio gisa erabiliko da.

Bosgarrena.—Ebazpena eta diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntza hau gauzatuko da auzotaxiaren erabiltzaileei diru-laguntza emanaz beraien joan-etorri pertsonaletarako. Hau kudeatzeko taxilariekin hitzarmen bat egingo da. Horretarako, ondorengo erabiltzeko arau orokorrak ezartzen dira:

- 1. Erabiltzailea auzotaxiaren erabiltzaileen erregistroan izena emanda egon behar da eta auzotaxi txartela eskuratu. Izen emate hori eskaria onartu ondoren egingo da eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-4-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



2. Izen-ematea urtero berriztatu beharko da, eskari- orria betez.
3. Bankuko kontu korrontearen titulartasun agiria aurkeztu beharko da dirulaguntza jasotzeko.
4. Taxi zerbitzua gauzaterakoan, erabiltzaileak bere erabiltzaile txartela erakutsiko du identifikatzeko eta taxilariari bidaiari ordaindu ondoren taximetroko tiketa eskatuko dio. Bertan ordua, kilometroak eta prezioa agertzen dira. Erabiltzaileak taxilariari bidaiaren %100a ordaindu beharko dio eta 2 hilabeterik behin tiket guztiak udalean aurkeztu dagokion dirua kobratu ahal izateko.
5. Tiketak Berhazen aurkeztu beharko dira, Auzo Alkateek 2 hilabeterik behin ospatzen diren batzarretan edo udal bulegoetan.
6. Taxilaria arlo ekonomikotik kanpo gelditzen da.
7. Udalak erabiltzaile bakoitzak aurkeztu dituen tiket kopuruaren kontua eramango du eta horren arabera kalkulatu da bakoitzari diruz lagunduko zaion kopurua, hirugarren puntuan agertzen denaren arabera.
8. Tiketak edo fakturak bakoitzarenak eta besterezinak dira.
9. Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duenaren 18.1.f) artikulua zehazten duena jarraituz, erabiltzaileak ezin izango du dirulaguntzarik jaso zerga betebeharrak egunean ez baditu edo Gizarte Segurantzarekin badu.
10. Aurreko puntuan zehazten den erregelamenduaren 22.1 artikulua zera zehazten du: onuradunak edo erakunde laguntzaileak obligaziorik ez badu aurreko betebeharratan aipatzen diren deklarazioak edo agiriak aurkezteko, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da.

Seigarrena.—Kontsignazioa

Deialdian zehaztuko da diru-laguntzetarako gehieneko kopurua eta ze aurrekontu partidari dagokion.

Aurrekontuaren ekitaldiaren barruan emandako laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko aipatutako kontsignazioa edota aurre- kontu aldaketak onartuko balira, eguneratzearen ondorioz egin dena.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-5-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



Laguntzak erabiltzaileek tiketak edo fakturak aurkeztu eta dagokion kalkuluak egin ostean exekutatu dira.

Zazpigarrena.—Organo eskuduna

Dirulaguntzak emateko prozedura antolatzeko eta bideratzeko organo eskuduna Urigintza saileko Teknikaria izango da.

Dirulaguntzaren ebazpena Alkatzaren eskumena izango da edo honek delegatzen duenarena.

Zortzigarrena. —Beste laguntza batzuekin ematea

Oinarri hauetan araututako diru-laguntza xede bera duten beste Administrazio Publiko batzuen laguntzekin ez da bateragarria izango, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

Bederatzigarrena.—Legedi aplikagarria

Oinarri hauei honako legedia aplikatuko zaio:

- Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legea
- Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua
- Zuzenbide administratiboko arau orokorrak
- Zuzenbide pribatuko arau orokorrak

Hamargarrena.—Laguntzak argitaratzea

Oinarri hauen eta bere onarpen erabakiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua betez.

Dirulaguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) oinarrituz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira Dirulaguntzen Datu Base Nazioneren bitartez.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-6-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3



I. ERANSKINA / ANEXO I

- Bermeon erroldatutako pertsonak bakarrik erabili ahalko dute auzotaxi.
- Zerbitzu hau Bermeoko udal eremura mugatuko da eta bertoko baserrietatik herrira joan etorriak egiteko erabili ahal izango da.



Erosketak. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9120 Faxa: 94 688 11 02
erosketak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

-7-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 16/05/2025 11:26:38

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0186
Data: 27/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012FA1B00T4C6P4I8Z0X3

